



AKTEA
BERMEOKO UDALEKO OSOKO BILKURA
(2025-04-30/03)

Bilkuraren izaera:	Ez ohikoa
Deialdia:	1. deialdia
Data:	2025-04-30
Lekua:	Udaletxeko osoko bilkurako areto nagusia
Hasiera-ordua:	17:30
Amaiera-ordua:	20:18

Bertaratuak

Alkate-Presidentea: Nadia Nemeh Shomaly (EH BILDU)

Zinegotziak:

Zigor Uriondo Arrue (EH BILDU)	Idoia Platas Arenaza (EAJ-PNV)
Endika Etxebarria Telleria (EH BILDU)	Alazne Zumeta Garro (EAJ-PNV)
Victor Uriarte Anasagasti (EH BILDU)	Kepa Zumeta Garro (EAJ-PNV)
Xabier Ortuzar Butron (GUZAN)	Ainhua Jayo Madariaga (EAJ-PNV)
Miren Karmele Gabantxo Uriagereka (GUZAN)	Ibon Legarreta Erkiaga (EAJ-PNV)
Iker Bilbao San Nicolas (GUZAN)	Jose Luis Arruza Alboniga-Mayor (EAJ-PNV)
Maite Caruezo Ugalde (GUZAN)	Ixone Soroa Güenaga (EAJ-PNV)
	Ander Garate Ormaza

Bertaratu ez direnak: Arantza Ormaza Tarantino (EH BILDU). 2025eko apirilaren 9ko 4948 Sarrera Erregistro bidez botoa alkatearengan delegatuta.

Idazkaria: Jurdana Uriarte Lejarraga



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaeda:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2025-02-26 OB (02)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukaten adieraztea.
- 3.- Energia berriztagarrien kooperatibaren bideragarritasuna aztertzeko komitea sortzea onartzea.
- 4.- Bermibusa arautzen duen ordenantza fiskala baliogabetzea onartzea.
- 5.- Bermeoko Udalaren 2025. urteko araudi plana aldatzea onartzea.
- 6.- Telelanaren araudia aldatzea onartzea.
- 7.- Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak iragartzeko kartel lehiaketaren oinarriak onartzea.
- 8.- Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri zehatzak onartzea.
- 9.- 78922642M NAN zenbakidun langileak egindako bateragarritasun eskaria onartzea.
- 10.- Hiri hondakinen kudeaketarako Bizkaiko Foru Aldundiarekiko lankidetza hitzarmena sinatzea onartzea.
- 11.- 2025/1147 Dekretuaren berri ematea. 2024ko Aurrekontuaren kitapena.
- 12.- 2025eko 662-1379 zenbakidun alkatetza dekretuen berri ematea.
- 13.- Tokiko Gobernu Batzarreko erabakien berri ematea: 2025eko otsailaren 18 eta 25, martxoaren 11, 18 eta 25 eta apirilaren 8ko erabakiak.
- 14.- "Bizkaiko udalen finantzazioa dela eta" udal taldeek aurkeztutako mozioa onartzea.
- 15.- Eskari eta itaunak.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA -
06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Data: 06/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

Presidenteak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkura hasi du eta hasteko Arantza Ormaza Tarantinok 2025eko apirilaren 9ko 4948 sarrera erregistro bidez aurkeztutako idatzia azaldu du:

“

...

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25.6 artikulua arabera, amatasunean izango naizela 2025/03/30 datatik 2025/12/31 datara. Horregatik, garai horretan egingo diren Osoko Bilkuretan, Herritarrak Informazio Batzordetan zein Lurralde Informazio Batzordean (ordezko moduan) eztabaidatzeko eta botoa emateko nire ahalmena nire udal taldeko alkate-presidentea den Nadia Shomaly andreari (Osoko Bilkurarako), Endika Etxebarria Telleria jaunari (Herritarrak Informazio batzorderako) eta Victor Uriarte Anasagasti jaunari (ordezko moduan Lurralde Informazio Batzorderako) delegatzen diedala, hurrenez hurren.

Halan jasota geratu dadin, dagozkion ondorioetarako, eztabaidatze eta bozkatze ahalmen delegazio hau egiten dut.

...”

Ondoren, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiak heldu diete. Emaita honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA: 2025-02-26 OB (02)

Batzarkideek 2025eko otsailaren 26ko 02/2025 akta aho batez onartzea erabaki dute.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=15&t=37>

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERREDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek ez dute adierazi gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukatela.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=15&t=60>



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



3.- ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOOPERATIBAREN BIDERAGARRITASUNA AZTERTZEKO KOMITEA SORTZEA ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=15&t=71>

Xedea

Energia berriztagarrien kooperatibaren bideragarritasuna aztertzeke komitearen sorrera.

Aurrekariak

Lehenengoa.- Bermeoko Udalak Energia berriztagarrien kooperatiba baten sorrera bultzatu nahi du. Horretarako, beharrezkoa da autokontsumoaren kalkulua egitea.

Bigarrena.- Autokontsumoaren kalkulua egiteko, udalaren jabetzakoa den biltegiaren argindar kontsumoak ikuskatzeko baimena eman behar zitzaion Nafarkoop, Koop. E-ri.

Hirugarrena.- 2024ko urriaren 31n, energia berriztagarrien kooperatiba sortzeko ES0021000009500297RY EQU020 – UDAL BILTEGIA udal eraikinaren argindar kontsumoak ikuskatzeko baimena eman zitzaion Nafarkoop, Koop. E-ri.

Laugarrena.- 2025eko apirilaren 3an, udal teknikariak txostena egin zuen.

Argudioak

Sektore Elektrikoari buruzko Legearen (abenduaren 26ko 24/2013 Legea, SEL) azken xedapenetako hirugarrenaren 6. zenbakiak (EDL 2013/247405), energia elektrikoa iturri berriztagarrietatik, kogeneraziotik eta hondakinetatik abiatuta ekoizteko araubide ekonomiko primatuko jardueraren araubide juridiko eta ekonomiko berriari buruzkoak, honako hau xedatzen du:

“Gobernuari ahalmena ematen zaio energia-komunitateak titular dituzten sorkuntza-instalazio guztiek ordainsari-tratamendu berezia izan dezaten, sorkuntzaren merkatuan izan behar duten jarraipenerako ezinbesteko tresna gisa. Energia-komunitateak dira pertsona fisikoak, tokiko edo probintziako



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta dataa

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9



erakundeak edo beste enpresa txiki eta ertain batzuk akziodun edo kide nagusi dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak, pertsona fisikoak edo enpresa txiki eta ertainak”.

Hala, ikusten dugunez, Sektore Elektriakoari buruzko Legeak –SEL– (abenduaren 26ko 24/2013 Legea) (EDL 2013/247405), energia-komunitateak irabazi-asmorik gabeko erakundetzat jotzen ditu, eta berariaz aurreikusten du toki-erakundeak haien parte izan daitezkeela. Komunitate horiek, printzipioz, ez dute irabazi-asmorik; izan ere, ekoizten den energia guztia komunitateko kide guztiek partekatzen duten autokontsumorako da. Ekoiztako energiaren zati bat merkaturatuko balitz, energia-komunitate horietatik kanpo geratuko litzateke.

Bestalde, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legearen (otsailaren 8ko 1/2024 Legea) 24.2 artikulua honako hau xedatzen du:

“Euskal administrazio publikoek sustatuko dute, ahal den neurrian, proiektatutako energia-kontsumo berriztagarriak lortzeko behar diren energia berriztagarriak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan instalatzea, energia berriztagarrien hedapen endogenoari lotutako aukera sozioekonomikoak aprobetxatzeko eta egungo kanpoko energia-mendetasuna murrizteko, hau da, subiranotasun energetikoa handitzeko.”

Horren ildotik, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legearen (otsailaren 8ko 1/2024 Legea) 24.6 artikulua honako hau adierazten du:

“Euskal administrazio publikoek herritarren energia-komunitateen eta energia berriztagarrien komunitateen garapena sustatuko dute, sorkuntza kontsumo-puntuetara hurbiltzeko eta energia-sistemaren demokratizazio handiagoa lortzeko, arreta berezia jarritz eremu ahulenetan eta herritarrek teknologia berriztagarrien proiektuetan parte har dezatela sustatzeko.”

Era berean, Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legearen (otsailaren 8ko 1/2024 Legea) 24.7 artikulua honako hau dakar:

“Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, energia elektriko eta termiko berriztagarria biltegiratzeko sistemak garatzea eta ezartzea bultzatuko dute, baita autokontsumoa eta ibilgailu elektrikoaren erabilera ere.”



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Data: 06/05/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9



Gainera, kontuan hartu behar da bai Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legearen (otsailaren 8ko 1/2024 Legea) 26. artikulua dakarrena, bai apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak (Toki-araubideko gaitan indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratua onartzen duena) 97. artikuluan xedatzen duena (EDL 1986/10119).

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA.- Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak (Toki-araubideko gaitan indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratua onartzen duena) 97. artikuluan (EDL 1986/10119) aipatzen duen komenigarritasun- eta egokitasun-espeditetari hasiera ematea, energia berriztagarrien energia-komunitatea eratzekoa, udalak sustatutako kooperatibaren figura juridikoa izango duena, eta tokiko enpresek zein auzotar partikularrek osatuko dutela, honako motibo hauengatik:

Herrian autokontsumoa bultzatzeko eta jasangarritasun energetiko arloan ekintzak burutzeko.

Herrian autokontsumoa bultzatzea eta jasangarritasun energetikoko arloan ekintzak burutzea funtsezko pausoak dira bai ingurumenaren babeserako, bai herritarren ongizatearen alde. Herri mailan energia berriztagarriak eta efizientzia energetikoa sustatuz, komunitateek ez dute soilik ingurumenean eragin kaltegarria murrizten, baizik eta energia kontsumoaren kostuak murrizteko aukera ere izan daiteke.

Autokontsumoa bultzatzeak herritarrei beren energiaren ekoizpena zein kontsumoa kontrolatzeko aukera eman ahal die; izan ere, sareekiko mendekotasuna murriztu, eta kostuak aurrezteko egoera paregabea bihur daiteke. Beste modu batera esanda, energia ekoizpenaren eta kontsumoaren tokiko kudeaketa ahalbidetzeak, etorkizuneko energi sistemaren parte izatera pasatzea posible egiten du.

Bestetik, jasangarritasun arloan ekintzak burutzea funtsezko urratsa da herri batentzako etorkizun energetiko arduratsu eta iraunkorra lortzeko, eta, horretarako, komite honen sarrera egokia izan daiteke



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025

Lekua: Bermeo

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9



BIGARRENA.- Honako azterlan-batzorde hau izendatzea:

- Zigor Uriondo.
- Gaizka Aurrekoetxea.
- Iñigo Gonzalez.

HIRUGARRENA.- Azterlan Batzorde horri eskatuko zaio planteatutako jarduera ekonomikoa emateko alderdi sozial, juridiko, tekniko eta finantzarioei buruzko memoria bat prestatzeko, gehienez bi hilabeteko epean.

4.- BERMIBUSA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA BALIOGABETZEA ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=15&t=370>

Gaia

Bermibusa zerbitzua arautzen duen ordenantza fiskala baliogabetzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Orain arte, Bermibusa zerbitzua, tarifak, ordainketa-modalitateak eta tasaren kudeaketarekin lotutako araudiak ezartzen dituen ordenantza fiskal baten mende egon da, Osoko Bilkurak 2010eko maiatzaren 25ean onartutakoa. Ordenantzaren azken aldaketa 2021eko abenduaren 15ean argitaratu zen BAOen.

Bigarrena: Irisgarritasun eta jasangarritasun arrazoietan oinarrituz, zerbitzua doan eskeintzeko erabaki politikoa hartu da, herritar guztiek oztopo ekonomikorik gabeko garraiobidea izan dezaten bermatzeko eta mugikortasun-eredu eraginkorragoa eta ekologikoagoa sustatzeko.

Hirugarrena: Zerbitzuaren kostuaren azterketa egin da eta ondorioztatu da zerbitzuaren kostua udal-aurrekontuan estalita dagoenez, eta zerbitzuaren kobranta kentzearen ondoriozko diru-sarreren galera hasieran aurreikusi gabeko beste eragiketa ekonomiko batzuetatik eratorritako diru sarrerekin konpentsatuko bada, bideragarritzat jo ahal dela doakotasuna ezartzea. Beti ere beste diru sarrera iturri bidezko konpentsazio horreek bermatu beharko



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9



duelarik kobrantza ezabatzeak ez duela arriskuan jarriko udalaren finantza-egonkortasuna, ezta beste zerbitzu publiko batzuk ematea ere.

Argudioa Juridikoak

Lehenengoa: Errepideko Bidaiaari Garraioari buruzko martxoaren 18ko 4/2004 Legeak, 4.3 artikuluan, udalerrii eskumena ematen die arlo honetan, honako hau adieraziz:

“los ayuntamientos son competentes, dentro del ámbito del transporte urbano, para la ordenación, gestión, inspección y sanción de los servicios de transporte público de viajeros, otorgamiento de los correspondientes títulos habilitantes y fijación del régimen tarifario con sujeción a lo dispuesto en la legislación aplicable al respecto. Igualmente, ostentarán las competencias que se establecen en el capítulo IX, en relación con las estaciones de viajeros”.

Bigarrena: Abenduaren 16ko Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauak honakoa jasotzen du:

“7. artikulua. Udal tributuen ordenamenduaren iturriak.

2. Zerga-ordenantzen bitartez, toki erakundeek beren barruko antolaketa- eta funtzionamendu araubidearen eredura egokitu ahal izango dute aurreko paragrafoaren lehen lerroaldean aipaturiko arautegia, baina egokitzen hori ezin izan daiteke arautegi horren eduki materialaren aurkakoa.”

“15. artikulua. Zerga-ordenantzen edukia.

1. Honako foru arau honetan aipatzen diren tributuoak ezarri, arautu eta mantentzeko beharrezkoak diren zerga-ordenantzek eduki hauek izango dituzte, gutxienez:

a) Zerga-egitatea, zergapekoa, arduradunak, salbuespenak, txikipen eta hobariak, zerga-oinarria eta oinarri likidagarria, karga-tasa edo zerga-kuota, zergaldia eta sortzapena zehaztu beharko dituzte.

b) Aitorpena eta sarrera egiteko araubideak.

c) Onespeneraren data eta aplikatzen hastekoa.

2. Zerga-ordenantzen bitartez, toki erakundeek beren barruko antolaketa- eta funtzionamendu araubidearen eredura egokitu ahal izango dute aurreko paragrafoaren lehen lerroaldean aipaturiko arautegia, baina egokitzen hori ezin izan daiteke arautegi horren eduki materialaren aurkakoa.”

Horrela Bermibusaren zerbitzuaren doakotasuna ezartzearen ondorioz, indarrean dagoen ordenantza fiskala ez da aplikagarria, tarifak eta tasa



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



kudeaketa baino ez dituelako arautzen. Beraz, hura indargabetzea beharrezko neurria bilakatzen da arauen koherentzia, administrazio-eraginkortasuna eta herritarrentzako argitasuna bermatzeko.

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, gehiengo osoz (EH BILDUren (5) eta GUZANen (4) aldeko botoekin, eta EAJ-PNVren (8) kontrakoekin), honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Bermibusa arautzen duen ordenantza fiskala, BAOen 2010eko maiatzaren 25ean 97 zenbakiarekin argitaratutakoa, baliogabetu zerbitzuaren doakotasuna ezartze aldera.

BIGARRENA: Behin-behineko erabakien jendaurreko informazioa eta argitalpena egingo da 30 egun balioduneko epean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan (fisikoa eta webgunekoa) eta probintziako islada handiko egunkari batean. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, automatikoki ordenantzaren ezeztapena behin betiko onartutzat emango da.

5.- BERMEOKO UDALAREN 2025. URTEKO ARAUDI PLANA ALDATZEA ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=15&t=2330>

Xedea

Bermeoko Udalaren 2025. urteko araudi plana aldatzea onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2025eko urtarrilaren 30ean izandako Osoko Bilkuran, Bermeoko Udalaren 2025eko Araudi Plana onartu zen.

Bigarrena: Aipatutako erabakian, 2025. urtean aldatu edo moldatu gura diren arauen zerrenda onartu zen.

Bermeoko Udaleko langileek zerbitzua telelanaren bidez lantokian bertaratu gabe emateari buruzko araudia ez da aurreikusi 2025. urtean aldatu edo moldatu nahi diren araudien artean, 2024. urteko planean aurreikusi baitzen.



Hirugarrena: Ezinbestekoa da zerbitzua telelanaren bidez lantokian bertaratu gabe emateari buruzko araudia aldatzea, Bermeoko Udalaren enplegatuei eragiten baitie eta egungo beharrizanetara egokitzea nahitaezkoa da.

Argudioak

Lehenengoa: Bermeoko Udalak 2025. urtean zehar aldatu edo onartzea aurreikusten dituen Ordenantzen Araudi Plana prestatu da Herri Administrazioen Prozedura Orokorra arautzen duen 39/2015 Legearen 132. artikularekin bat etortzeko.

Bigarrena: 40/2015 Legearen 3. artikuluan arautzen da Herri Administrazioek euren jardunean bete behar dituzten printzipio hauek: gardentasuna, eta helburuen arabera planifikazioa eta zuzendaritza.

Hirugarrena: 39/2015 Legearen 132. artikularen 1. atalaren arabera, 2025. urtean onartu nahi diren araudi eta ordenantzak jasotzen dituen Araudi Plana onartu beharra dago.

Laugarrena: 39/2015 Legearen 132. artikularen 2. atalaren arabera, onartutako Araudi Plana Gardentasun atalean argitaratuko da.

Bosgarrena: Plangintza onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimenaren Oinarrien 7/1985 Legearen 22.2.d) artikularen arabera Ordenantzak onartzea Osoko Bilkuraren ahalmenekoa denez, Osoko Bilkurari dagokio.

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Bermeoko Udalaren 2025eko Araudi Plana aldatzea onartzea, honako araudiaren aldaketa aurreikusiz:

- Bermeoko Udaleko langileek zerbitzua telelanaren bidez lantokian bertaratu gabe emateari buruzko araudia

Xedea: Bermeoko Udaleko enplegatuek bertaratu gabeko zerbitzua, telelanaren formularen bidez, nola eman arautzea.

Sail arduraduna: Langileria Saila

Egin gura den jarduna: Bermeoko Udalaren eta lanpostuen beharrizanen eta berezitasunen arabera eguneratzea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udalak)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9



Arrazoia: Ezinbestekoa da telelana egiteko araudia egungo beharrianetara egokitzea.

BIGARRENA: Araudi Plana Bermeoko Udalaren web guneko gardentasun atarian argitaratzeko agindua ematea Berrikuntza, Gobernu Irekia eta Herritarren Arreta Sailari.

HIRUGARRENA: Udal sail guztiei erabakia jakinaraztea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA -
06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



2025. URTEKO ARAUDI PLANA

Erakunde publikoen jarduna arrazionalizatzeko, baliabide publikoak efizientzia handiagoaz erabiltzeko eta produktibitate handitzeko bultzatu beharreko eginkizunen artean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea onartzen eban 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea onartu zan eta, Lege honek, administrazio publikoen efizientzia, gardentasuna eta bizkortasuna bultzatu gura dauz.

Arautzen dauzan atalen artean, Administrazio Publikoek daukeen Erregelamenduak onartzeko ahalmena aurreikusten da eta, erregulazio onaren printzipioagaz bat, ahalmen horretan, herritarrei entzunaldia eta parte hartzeko aukera emon jakela, eta era egokian emongo jakela bermatu asmoz, eta arauak egiteko prozeduran daukeen parte hartzea handiagotzeko helburuagaz, erregulatze onaren printzipio lege, gardentasuna aurreikusten da eta, gardentasunaren barnean, arauen elaborazioan herritarren parte hartzea aktiboa.

Hori lortzeko, 39/2015 Legearen 132. Artikuluan, Arau-Plangintza xedatzen da, honakoa adierazoz: "1. Urtez urte, administrazio publikoek argitara emango dute araugintza-plan bat, eta hartan jasoko dira hurrengo urtean onesteko igorriko diren lege- edo erregelamendu ekimenak.

2. Onetsitakoan, Urteko Araugintza Plana argitaratu egingo da, dagokion administrazio publikoaren gardentasun-atarian".

Bestalde, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen dauan 40/2015 Legea onartu zan, zeinetan administrazioaren jarduna zuzendu behar dabezan kriterio barri lege, gardentasun printzipioa eta helburuen arabeko planifikazioaren eta zuzendaritzaren printzipioa jasotzen dira.

Zentzu horretan, honakoa dino 40/2015 Legearen 3. artikulua: "1. Administrazio publikoek objektibotasunez egiten dute lan interes orokorraren alde. Halaber, efikazia, hierarkia, deszentralizazio, deskontzentrazio eta koordinazioaren printzipioei begira dihardute, erabat errespetatuta Konstituzioa, legeak eta zuzenbidea.

Beren jarduketan eta harremanetan honako printzipio hauek zaindu beharko dituzte:

(...) c) Administrazio-jarduketan parte-hartzea, eta administrazio-jarduketa hori objektiboa eta gardena izatea.

(...) g) Helburuen arabeko plangintza eta zuzendaritza, eta politika publikoen kudeaketaren kontrola nahiz politika horien emaitzen ebaluazioa".



Sinadurea eta data



Beraz, Lege agindu horreek bete asmoz, eta Udalaren arautze ahalmenaren barnean, planifikatze betebeharra bete daiten alde batetik, eta herritarrek ahalik eta parte hartze handiena bermatu gurean bestetik, Bermeoko Udalaren 2025. urterako Araudi Plana onartu eta jakitera emotea da agiri honen helburua.

1.- 2025. urterako Araudi Plana. Erregulatze-ahalmenaren aurreikuspena.

Araudi Plan honetan, 2025. urtean zehar, Bermeoko Udalak onartuta daukazan Erregelamendu eta Ordenantzetatik aldatu edo moldatu gura diranak, eta onartu gura diran Erregelamendu eta Ordenantza barriak aurreikusten dira.

Eta aurreikuspen bat dan heinean, ez da loteslea izango. Hau da, gerta leike Araudi Plan honetan jasotako asmoak ez betetzea 2025. urtean, eta gerta leike be, aurretik ikusi edo pentsatu ez izan arren, sortutako beharrizanengaitik, beste arau batzuk aldatu, moldatu edo onartu behar izatea.

Halan da be, azken kasu honetan, eta 40/2015 Legeak bermatu gura dauzan gardentasun eta parte hartzea, eta planifikazio egokia bermatzeko, beharrizana sortu bezain laster, Araudi Plan hau iragartzen dan atalean bertan, horren barri emongo da, egokia dan iragarkiaren bidez.

2.- Gardentasuna:

Lege agindua era eraginkorrean betetzeko, Araudi Plan hau, Bermeoko Udalaren web guneko Gardentasun-atarian iragarriko da eta, aurreko atalean adierazo lege, leku berean argitaratuko dira Plan hau onartu eta gero sortu leikezan beharrizan eta ekimen barriak.

3.- Parte hartzea:

Erregelamendu eta Ordenantzak proposatzeko herritarrek daukeezan eskubideez gain, eta Arau zehatz bat behin-betiko aldatu, moldatu edo onartu orduko lege aginduz bete beharreko entzunaldian alegazioak aurkezteko aukeraz gain, Araudi Plan hau onartu eta iragartzen dan unetik aurrera, Araudi Planean aurreikusitako arauen ganeko proposamenak, iradokizunak, eskariak, etab. aurkeztu ahal izango dabez interesdunek, arau zehatzen erredakzio barria egiterakoan aztertutak izango diranak.

Aurreko paragrafoan aitatutako parte hartze aukera, araudi proiektu edo erredakzioa idatzi baino lehenago egin beharreko alde aurretiko kontsulta publikoa zabaldu arte erabili ahal izango da.

Aldez aurretiko kontsulta publikorik egin behar ez dan kasuetan, araudi proiektu edo erredakzioa egin arte egongo da parte hartze aukera hau erabiltzeko ahalmena.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9



Aurkeztutako proposamen, iradokizun, eskariak, etab. erredakzino barrian jasoko ez balira, horren zergaiti zehatza emongo litzakie proposatzaileeri, baina beti be, kontutan eukita, parte hartzea bermatzea behar-beharrezkoa bada be, parte hartze horretako emaitza ez dala loteslea eta ezin dauzala interes orokorra eta erakundearen arautze ahalmena mugatu.

Behin alde aurretiko kontsulta publikoaren epea zabaldua, Bermeoko udal-araudiak eta ordenantzak sortzeko prozeduran alde aurretiko kontsulta publikoa, entzunaldia eta informazio publikoari buruzko gidalerroen arabera aurkeztuko dira proposamenak, iradokizunak, eskariak, etab. Eta hori guztia, onarpen prozedurearen barnean aurreikusten dan entzunaldi epean aurkeztu leikezanen kalte barik.

4.- 2025. urtean aldatu edo moldatu gura diran Arauen zerrenda:

Bermeoko Udalak onartuta daukazan Arauen artetik, honeek aldatu gura dira urte honetan zehar:

1. Bermeoko hiriko oinezkoen gunea antolatzeko ordenantza

Xedea: Udaleko alde zaharreko gunean ibilgailuen kueaketa xedatzea

Sail arduraduna: Udaltzaingoa eta Berrikuntza Saila

Egin gura dan jarduna: Baimen moten azterketa, lokal hutsen jabeei sartzeko aukera emateko, negozioak dituzten enpresaburuei baimen kopurua handitzeko eta xedatu gabe dauden etxebizitza turistikoak arautzeko.

Arrazoa: Alde zaharrean lan egiten duten eragileei sarbidea erraztu eta etxebizitza turistikoak arautzeko

2. Kirol Patronatuaren instalazio eta gainerako zerbitzuak erabili ahal izateko eskubideak, betebeharrak eta baldintzak arautzen dauan arautegia:

Xedea: Udalaren Kirol Patronatuaren instalazioak eta gainerako zerbitzuak erabili ahal izateko eskubideak, betebeharrak eta baldintzak arautzea."

Sail arduraduna: Kirol Saila

Egin gura dan jarduna: Aldatu, legera egokitzeko.

Arrazoa: Eguneraketa egitea, 2/2023 kirol legearen xedapenek ezarritakoaren arabera.

3. Bidaiariak Automobil Arinetan Garraiatzeko Zerbitzuari buruzko Udal Araudia:

Xedea: Udalerrian bidaiariak automobil arinetan (taxiak) garraiatzeko zerbitzua arautzen dau.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



Sail arduraduna: Zerbitzu Saila.

Egin gura dan jarduna: Auto-taxien jardura arautzen duen ordenantza zuzentzea eta eguneratzea.

Arrazoa: Akatsen bat zuzendu beharra dago, azken urteotan agertu diran bestelako zerbitzuak/erabilerak arautu eta 4/2019 Legera egokitzea.

4. Bermeon animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza:

Xedea: Bermeon leudekeen animaliak babestu, eduki eta saltzeko arauak ezartzea.

Sail arduraduna: Zerbitzu Saila.

Egin gura dan jarduna: Bermeon animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza eguneratzea.

Arrazoa: Ordenantza eguneratu behar da 44/2020 DEKRETUari, martxoaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko Dekretua aldatzen duenari egokitzuz eta 9/2022 Legera egokitzeko. Halaber, Animalien eskubidea eta ongizatea babesteko martxoaren 28ko 7/2023 Legera ere egokitu beharra dago.

5. Terrazak espazio publikoetan jartzeari buruzko udal ordenantza:

Xedea: Terrazak espazio publikoetan jartzeari buruzko arauak ezartzea.

Sail arduraduna: Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila.

Egin gura dan jarduna: Espazio publikoaren kudeaketa egokia.

Arrazoa: Azken urteetan espazio publikoan ipinitako terraza kopuarua nabari ugaritu da. Terraza horreek modu ordenatuan ipintea bermatzeko ordenantza berrikustea beharrezkoa da.

6. Udaltzaingoaren barne Araudia:

Xedea: Bermeoko udalerriko Udaltzaingoaren funtzionamendua, antolakuntza, egitura eta Araudi honetan aitatutako gainontzeko alderdiak egokitzeko arauak ezartzea

Sail arduraduna: Udaltzaingoa

Egin gura dan jarduna: Adinaren arabera egokitutako zerbitzua arautzea

Arrazoa: Zahartu ahala polizia baten funtzioak modulatzeko, segurtasun eta eraginkortasun operatiboko kontua izateaz gain, zerbitzuan emandako urteetan



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9



metatutako esperientziaren eta ezagutzaren aintzatespena eta balioespena ere bada. Aldaketa honekin, 60 urtetik gorako udaltzainei euren adinera eta gaitasunera egokitutako lanak burutzeko aukera ematen da.

7. Bermeoko Udaleko lan poltsak kudeatzeko araudia

Xedea: Bermeoko Udaleko lan poltsak kudeatzeko irizpideak ezartzea.

Sail arduraduna: Langileria Saila

Egin gura dan jarduna: Bermeoko Udaleko lan poltsak kudeatzeko araudia berraztertu eta eguneratu.

Arrazoa: Ezinbestekoa da Bermeoko Udaleko lan poltsak kudeatzeko irizpideak egungo beharrianetara egokitzea.

8. Bermeoko Udal Azokako Ordenantza:

Xedea: Udal azokaren erabilera eta kudeaketa arautzen dau.

Sail arduraduna: Behargintza Saila.

Egin gura dan jarduna: Postuen emakidei buruzko arauak gaur egungo beharrianetara egokitu.

Arrazoa: Gaur egun araututa dagoen moduan ez diranez postuen esleipenak eta ustiapena bermatzen, gaur egungo beharrianetara egokitu beharra dago.

9. Musika eskolako barne arautegia

Xedea: Musika eskolako barne arautegia berriztu.

Sail arduraduna: Hezkuntza saila

Egin gura dan jarduna: gaur egungo beharrianetara egokitu

Arrazoa: Zaharkituta dago eta eguneratu beharra dago.

10. Bizikidetza Ordenantza:

Xedea: espazio publikoa topagune eta bizikidetzarako leku gisa zaintzea

Sail arduraduna: Udaltzaingoa

Egin gura dan jarduna: araudiaren eguneraketa, ikusi diren beharrianak asetzea

Arrazoa: herrian ematen diren hainbat arazoei konponbide bat eman ahal izateko ordenantza eguneratu beharra dago.



11. Bermeoko Udaleko langileek zerbitzua telelanaren bidez lantokian bertaratu gabe emateari buruzko araudia

Xedea: Bermeoko Udaleko enplegatuek bertaratu gabeko zerbitzua, telelanaren formularen bidez, nola eman arautzea.

Sail arduraduna: Langileria Saila

Egin gura den jarduna: Bermeoko Udalaren eta lanpostuen beharrianen eta berezitasunen arabera eguneratzea

Arrazoa: Ezinbestekoa da telelana egiteko araudia egungo beharrianetara egokitzea.

5.- 2025. urtean onartu gura diran Arau barrien zerrenda:

Bermeoko Udalak Arau barri honeek izapidetu eta onartu gura dauz urte honetan zehar:

1. Bermeoko Udal antolaketa eta funtzionamendurako Araudia

Xedea: Udala antolatu eta funtzionamendua arautu.

Sail arduraduna: Idazkaritza Saila.

Egin gura dan jarduna: Onartu

Arrazoa: Ez dago eta beharrezkoa da udala ondo antolatua egon daiten eta funtzionatzeko era zein izango dan jasota egon daian.

2. Administrazio Elektronikoa Bermeoko Udalean:

Xedea: Azken urteetako eraldaketa prozesu guztia xedatzea, udal barnean espediente guztiak elektronikoki burutu eta pertsona juridiko zein fisikoeikin hartu eman guztia modu elektronikoan berme juridiko guztiekin burutu dadin.

Sail arduraduna: ATB Saila

Egin gura dan jarduna: Onartu.

Arrazoa: Ez dagoelako erregelamendurik eta xedatu beharra dagoelako.

3. Partaidetza:

Xedea: Udalak egiten dituen prozesu partehartzaileak xedatu eta lankidetza dinamikak udal jardunean txertatzeko modua ezarrita uzteko.

Sail arduraduna: ATB Saila

Egin gura dan jarduna: Onartu.



Arrazoia: Ez dagoelako Araudirik eta funtzionamendu bateratua eta sistematikoa bilatzen delako.

4. Bermeoko udalerriko hondartza eta itsas-kalen erabilerari buruzko ordenantza:

Xedea: Aritzatxu hondartzaren eta herriko kaleen erabilera arautzeko.

Sail arduraduna: Zerbitzu Saila.

Egin gura dan jarduna: Onartu.

Arrazoia: Inguru natural horien erabilera arautu beharra: txakurrak, kanpaldiak, motorren erabilera...).

5. Bermeoko higiezinaren eta kultur ekipamenduen erabilera eta funtzionamendua arautzeko ordenantza

Xedea: Aitatutako lokalen erabilera eta kudeaketa arautzeko.

Sail arduraduna: Kultura eta Hezkuntza Saila.

Egin gura dan jarduna: Onartu.

Arrazoia: Ez dagoelako erregelamendurik eta arautu beharra dago.

6. Bermeoko Udal Artxiboko Araudia

Xedea: Udal Artxiboa antolatu eta funtzionamendua arautu.

Sail arduraduna: Kultura eta Hezkuntza Saila.

Egin gura dan jarduna: Onartu

Arrazoia: Ez dago eta beharrezkoa da udala ondo antolatua egon daiten eta funtzionatzeko era zein izango dan jasota egon daian.

7. Apartamentu turistikoen inguruko Ordenantza:

Xedea: Apartamentu turistikoei buruzko arauak ezartzea.

Sail arduraduna: Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila.

Egin gura dan jarduna: Apartamentu turistikoen kudeaketa egokia.

Arrazoia: Azken urtean Bermeon dagozan apartamentu turistikoak asko ugaritu dira, batez ere alde zaharrean. Jarduera barri hau arautzea beharrezkoa da.

6.- 2026. urterako Ordenantza fiskalak:

Ordenantza fiskalak urtero errebisatzen dira eta, ondorioz, 2025. urtean be, 2026. urterako errebisatzeko aurreikuspena dago.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



7.- Bestelako ekimenak:

Aurretik adierazotako ekimenetatik kanpo, udal talde politikoek eta negoziatzino mahaiak daukeen proposatze ahalmenetatik sortu leikezanak be bideratuko dira 2025. urtean, horrelakorik balego.

Eta bardin egon leikezan prozedura judizial edo epaien ondorioz, edota legedi aldaketen ondorioz, araudi zehatz bat aldatu, moldatu edo onartzeko betebeharra sortuko balitz.

Kasu honeetan, eta arintasuna bermatze aldera, Araudi Plan honen aldaketak egiteko ahalmena Alkatetzarengan delegatzen da.

6.- TELELANAREN ARAUDIA ALDATZEA ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=15&t=2331>

Xedea

Telelanaren Araudiaren aldaketa hasieraz onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2025eko urtarrilaren 30ean izandako Osoko Bilkuran, Bermeoko Udalaren 2025eko Araudi Plana onartu zen. Aipatutako erabakian, 2025.urtean aldatu edo moldatu gura diren araudien zerrenda onartu zen.

Bigarrena: Ezinbestekoa da zerbitzua telelanaren bidez lantokian bertaratu gabe emateari buruzko araudia aldatzea, Bermeoko Udalaren enplegatuei eragiten baitie eta egungo beharrianetara egokitzea nahitaezkoa da.

Bermeoko Udalaren 2025eko Araudi Plana aldatzea proposatu da, telelanaren araudiaren aldaketa aurreikusiz.

Hirugarrena: Kontsulta publikoaren fasea eginda eta Araudi Planean jasota, Telelanaren Araudiaren aldaketa prestatu da.

Laugarrena: 2025eko martxoaren 31n, Telelanaren Araudiaren aldaketaren gaineko eta erregulazio oneko printzipioen gaineko justifikazio txostena egin du Langileriako teknikariak.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Data: 06/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

Argudioak

Lehenengoa: Aldaketa honekin, honako hauek aldatu nahi dira:

- 4.artikuluaren 1.a) paragrafoa aldatu.
- Eranskinak gehitu

Era berean, telelan modalitatean lan egin ahal izateko baldintzak egokitu gura dira kasu zehatz batzuetan, langileen eskubide eta betebeharrak edota lanaren efizientzia bermatu ahal izateko.

Beraz, aldaketa horrekin, kudeaketa arazoak ekidin gura dira eta eskubide eta betebeharrak bermatu gura dira.

Bigarrena: 2025eko martxoaren 31n egindako justifikazio txostenean adierazten den moduan, Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Orokorra arautzen duen 39/2015 Legearen 129. artikulua xedatutako erregulazio oneko printzipioak betetzen dira aldaketa honetan.

Hirugarrena: Ordenantzen onarpenari buruz, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen duen 781/1986 EDLk, bere 56. artikuluan, hauxe jasotzen du: "La aprobación de las Ordenanzas locales se ajustará al procedimiento establecido en el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril.

Para la modificación de las Ordenanzas y Reglamentos deberán observarse los mismos trámites que para su aprobación."

Laugarrena: Eta Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legeak, bere 49. artikuluan, honakoa arautzen du: "La aprobación de las Ordenanzas locales se ajustará al siguiente procedimiento:

- a) Aprobación inicial por el Pleno.
- b) Información pública y audiencia a los interesados por el plazo mínimo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.
- c) Resolución de todas las reclamaciones y sugerencias presentadas dentro del plazo y aprobación definitiva por el Pleno.

En el caso de que no se hubiera presentado ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional".

Hori horrela, Ordenantzaren aldaketa hasieraz onartzeko ahalmena Osoko Bilkurari dagokio.



Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Telelanaren Araudian 4. artikularen 1.a) paragrafoa aldatzeko eta eranskinak gehitzeko Araudiaren aldaketa hasieraz onartzea.

BIGARRENA: Entzunaldi epea zabaltzea eta, horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzeko agindua ematea Langileria Sailari.

HIRUGARRENA: Entzunaldi epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, Araudiaren aldaketa behin betiko onartutzat emango da, Araudia indarrean sartzeko bere testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar izatearen kalterik gabe.

7.- ANDRA MARI ETA SANTA EUFEMIA JAIK IRAGARTZEKO KARTEL LEHIAKETAREN OINARRIAK ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=15&t=2429>

Xedea

Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak iragartzeko kartel lehiaketaren oinarriak onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Kultura eta Hezkuntza Sailak, 2025eko urtarrilaren 15eko datako Jai batzordean, Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak iragartzeko kartel lehiaketako oinarriak aldatzea proposatu du, irispideetan aniztasuna bermatzeko.

Bigarrena: Kultura eta Hezkuntza Sailak Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak iragartzeko kartel lehiaketako oinarri orokorrak prestatu ditu, 2024 urteko oinarriak eguneratu ondoren.

Hirugarrena: Andra Mari eta Santa Eufemia jaiak iragartzeko kartel lehiaketaren oinarriak onartu ondoren, urtero Udalak lehiaketari dagokion deialdia kaleratuko du.



Laugarrena: 2025eko martxoaren 20an, Kulturako teknikariak justifikazio txostena egin du, lehiaketaren oinarrietan beharrezkoa den edukia dagoela adierazten.

Bosgarrena: 2025eko martxoaren 21ean, Idazkaritzako AOT-k txosten juridikoa egin du

Seigarrena: 2025eko apirilaren 1ean, kontu hartzaileak 67/2025 aldeko fiskalizazio txostena egin du.

Argudioak

Lehenengoa: Gastuak, beharrezko atxikipena dauka (RC 2025/000239)

Bigarrena: Oinarri espezifikoak onartzeko ahalmenari dagokionez, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 9.2, eta 17.2 artikuluen eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.e) artikuluekin bat, Osoko Bilkurari dagokio.

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako kartel iragarlearen lehiaketaren oinarriak ontzat hartzea.

BIGARRENA: Kultura eta Hezkuntza Sailari Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako kartel iragarlearen lehiaketaren oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bidaltzeko agindua ematea.

8.- BERMEOKO KULTUR TALDE, ELKARTE ETA PERTSONA FISIKOEI URTEKO KULTUR ETA JAI EKIMENAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ZEHATZAK ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=15&t=2553>

Xedea

Bermeoko kultur talde eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri zehatzak aldatzea onartzea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9



Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko abenduaren 19an, udal Osoko Bilkurak, 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bigarrena: 2023ko martxoaren 31ko Osoko Bilkurak, Bermeoko kultur talde, elkarte eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri zehatzak onartu ditu. Erabaki honen iragarkia 2023ko apirilaren 28ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

Hirugarrena: 2023 urtean onartutako oinarri zehatzetan akatsak antzeman dira eta hobetzeko arloak ere aurreikusi dira.

Laugarrena: oinarri zehatzetan antzemandako akatsak zuzendu dira. Eta testu batzuk ordenatu dira, argiagoak izateko.

Bosgarrena: proposatutako aldaketak honako hauek dira:

- Herriko kaleetako jaietako ekintzak antolatzeke lerroa, 2. deialditik 3. deialdira pasatu da, landa eremu auzoetako jaietako prozedura berdina edukitzeko.
- Berdintasun irizpideak sartu egin dira, lehenengo aldiz. Eta aniztasunaren irizpidea ere, egokitu egin da.
- Euskararen erabileraren irizpidea hobetu da, objektiboagoa izateko.
- Diruz lagunduko diren kontzeptuen atalean, janari gastuen kontzeptua %25etik %20ra jaitsi da.
- Prozeduran, aldaketa garrantzitsua egin da. Orain, udalak deialdietan ohiko prozedura egitea eskatuko du, hau da, lehenago eskaera egin, dirulaguntzaren ebazpena eta ondoren, justifikazioa eskatu, eta azken likidazioa egitea. Edo, prozedura berri bat erabiltzeko aukera eskainiko du: eskaera eta justifikazioa batera aurkeztu, tramite bakar batean eta ebazpena behin eginda, prozedura amaitu egiten da.
- Dirulaguntza gehiengo kopuruak aldatu dira, aurrekontuak eta azken urteko ebazpenak kontuan izanik:
 - 1. deialdian, 9.000 eurotik 7.500 eurora jaitsi da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Data: 06/05/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9



- 2. deialdian, 4.500 eurotik 4.000 eurora jaitsi da.
- 3. deialdian 4.000 eurotik 4.500 eurora igo da, landa eremuko auzoko jaiak antolatzeke eta 4.000 eurotan finkatzen da gehiengoa herriko kaleetako jaiak antolatzeke.
- Dirulaguntzak ordaintzeko, eskaera eta justifikazioa batera egiten denean, ordainketa,%100 izango da.

Eskaera eta justifikazioa bi epealdietan egiten denean, aurretiko ordainketa egingo da, baina portzentajeak orain %75a eta gero %25a izango da, itzulketak ekiditeko.

- Jarraipen eta ebaluaketako adierazleak aldatu dira, udaleko dirulaguntzen prozesuan esandakoaren arabera.
- Eranskin berri bat egitea proposatzen da, eskaera eta justifikazioa batera egiteko.
- Genero eragina positiboa da, orain berdintasun irizpideak sartu direlako.

Seigarrena: 2025eko martxoaren 27an, Kulturako teknikariak oinarri zehatzak aldatzeko justifikazio txostena egin du.

Zazpigarrena: 2025eko martxoaren 28an, Idazkaritzako AOT-k txosten juridikoa egin du.

Zortzigarrena: 2025eko apirilaren 1ean, kontu-hartzaileak 72/2025 zenbakidun aldeko fiskalizazio txostena egin du.

Argudioak

Lehenengoa: Antzeman diren akatsak zuzendu eta hobetzekoak proposatu beharra dago, oinarri zehatzak gaurkotzeko.

Bigarrena: Oinarri Espezifikoko onartzeko ahalmenari dagokionez, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 9.2, eta 17.2 artikuluen eta Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluekin bat, Osoko Bilkurari dagokio.

Erabakia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9



Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Bermeoko kultur talde eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri zehatzak aldatzea onartzea, era honetan:

BERMEOKO KULTUR TALDE, ELKARTE ETA PERTSONA FISIKOEI URTEKO KULTUR ETA JAI EKIMENAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ZEHATZAK

ESPARRUA: KULTURA ETA HEZKUNTZA

UDAL SAILA:	KULTURA ETA HEZKUNTZA
INSTRUKTOREA:	Kulturako teknikaria
BALORAZIO BATZORDEA	Dirulaguntzen Balorazio Batzordea honako hauek osatuko dute: udalean izendatuta dauden alderdietako kide bana edo ordezkioak eta instruktorea, idazkaria izango dena.
DIRULAGUNTZA EBATZIKO DUEN ORGANOA:	Tokiko Gobernu Batzarra
EBAZPENA JAKINARAZTEKO EPEA:	Hiru deialdi egingo dira: 1. Kultur taldeen ohiko funtzionamendurako eta ekintzetarako dirulaguntzen deialdia 2. Herriko jaietako ekintzetarako dirulaguntzen deialdia 3. Landa eremu auzoetako eta herriko kaleetako jaiak antolatzeako dirulaguntzen deialdia Ebazteko eta jakinarazteko 60 egun egongo dira, deialdi bakoitzean eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
DIRULAGUNTZAREN LERROA:	Herrian edota auzoetan kultur eta jai ekimenak antolatzea.
KODEA:	
AURREKONTUAN ZEHATZUTAKO DIRU KOPURUA:	Urteko aurrekontuan jasotako kopuruaren arabera.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



HELBURUAK:	- Bermeoko kultura, nortasuna eta jaien zabalkundea sustatzea. - Euskal folklorea eta kultura zabaltzeko izaera publikoko ekintzen garapena eta presentzia lortzea. - Beste komunitate eta udalerrietan, elkartrukeak eta euskal kultur ondarea zabaltzea sustatzea. - Bermeoko Udalak antolatutako ekintzetan parte-hartzea lortzea. - Sorkuntza eta zabalkunde artistikoa bultzatzea. - Herrian eta auzoetan tradiziozko jaiak antolatzea. - Herritar eta auzotar guztiei bakoitzaren ohiturak ezagutaraztea. - Herriko eta herritik kanpoko jendea erakartzen duten ekintzak antolatzea.
EPEAK:	Eskaerak aurkezteko epeak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren deialdietan zehaztuko dira. Justifikazioak aurkezteko epeak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren deialdietan zehaztuko dira.
BALORAZIO IRIZPIDEAK:	- Bazkide kopurua (1. eta 2. deialdiak): 3tik 9ra 3 puntu 10etik 19ra 6 puntu 20tik 49ra 9 puntu 50etik 99ra 12 puntu 100 baino gehiago 15 puntu - Elkartearen zuzendaritza batzordean % 40 gutxienez emakumeak direla egiaztatzen bada (1., 2. eta 3. deialdiak) 5 puntu - Aurreko urtean Bermeoko herriari eskainitako ekimen kopurua (1. eta 2. deialdiak): - Bat ere ez 0 puntu 1 edo 2 5 puntu 3tik 5era 10 puntu 6tik gora 15 puntu - Taldearen antzintasuna (1. eta 2. deialdiak): 3 urtera arte 3 puntu 4 eta 10 urte bitartean 6 puntu 11 eta 15 urte bitartean 9 puntu - Taldea sortu berria bada 10 puntu 16 eta 25 urte bitartean 12 puntu 25 urtetik gora 15 puntu - Taldeakideen formazio arloa lantzea edo herritarrei ikastaroak eskaintzea (1. eta 2. deialdiak): - Formazioa 5 puntu - Ekitaldi berezia, urteurren nabarmena ospatzeko (1. eta 2. deialdiak): 5, 20, 30, 40, 60, 70, 80 edo 90 5 puntu 10, 25, 50 edo 75 10 puntu



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9



	• 100 edo multiploak 15 puntu
	- Aurreko urtean herrian egindako ekintzarik garrantzitsuenaren hartzaile kopurua (1., 2. eta 3. deialdiak): • 100era arte 3 puntu • 101etik 300era arte 6 puntu • 301etik 500era arte 9 puntu • 500etik gora 10 puntu - Euskararen erabilera eta euskal kulturaren sustapena (1., 2. eta 3. deialdiak). Azken 5 puntuak metagarriak izango dira. • Ekimenetako idatzizko erabilera 7 puntu • Ekimenetako ahozko erabilera 8 puntu • Ekimenetako ahozko eta idatzizko erabilera 15 puntu • Euskara sustatzeko ekintzetan parte hartzea edota euskal kulturarekin edo identitatearekin lotutako ekimenak sustatzea 5 puntu - Beste elkarte edo erakunde batzuekin elkarlana (1., 2. eta 3. deialdiak): • Ekitaldi bat 5 puntu • Ekitaldi bitik gora 10 puntu - Norbere finantziazioa edo beste diru iturri batzuk edukitzea, udaleko dirulaguntzaz gain (1., 2. eta 3. deialdiak): • Aurrekontuaren % 5etik eta % 20ra arte 8 puntu • Aurrekontuaren % 20 baino gehiago 15 puntu - Jai batzorde batean (herrikoa edo auzoetakoan) parte hartzea (1., 2. eta 3. deialdiak): 10 puntu - Programatutako egitarauaren garrantzia kontuan hartuko da eta modu berezian baloratuko dira eta landa eremuko auzoan edo/eta herrian sustraituta dauden ekitaldiak eta jaiak badira (3. deialdia): • 2 urtera arte 5 puntu • Lehenengo urtea 10 puntu • 3 urtetik 14 urtera arte 15 puntu • 15 urte baino gehiago 30 puntu - Programaren interesa eta aniztasuna (1., 2. eta 3. deialdiak), puntuazioa metagarria da: • Adin ezberdinetakoentzako ekitaldiak 5 puntu • Genero berdintasuna bultzatzen duten ekitaldiak 5 puntu • Kulturartekotasuna bultzatzen duten ekitaldiak 5 puntu



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

- Elkarleen eta udalaren arteko ahozko eta idatzizko harremanak, ahal den kasu guztietan, euskaraz izango dira.
- Ekimenen edo ekintzen ondorioz egingo diren idatzi, ohar eta gainerakoak, baita publizitatea ere, ahoz zein idatziz, euskaraz izango da. Hizkuntza gehiagotan egitekotan, euskarari lehentasuna emango zaio.
- Jarduera arruntak, hau da, eskolak, tailerrak, saioak eta abar euskaraz izango dira, eta arreta berezia jarriko zaie ume eta gazteei zuzendutakoei. Kasuren batean, dinamizatzaileraren gaitasun ezagatik ezinezkoa balitz euskaraz bideratzea, gutxieneko komunikazioa euskaraz izatea bermatuko da (agurrak, esaldi solteak...).
- Kultura elkarteek euren jarduna bideratzeko dinamizatzaileak kontratatu behar badute, kontratatzeke baldintzen artean dinamizatzailerak euskaraz normaltasun osoz bideratzeko hizkuntza gaitasuna duten langileak kontratatuko dira (euskaraz jarduteko gaitasun nahikoa duten giza baliabideak bilatzeko lan aktiboa egingo da).
- Egunerokotasunean erabiltzaileei informazioa helarazteko edo herritarrei zuzenduta erabiltzen diren informazio kanaletan euskara erabiliko da, beharrezkoa den kasuetan beste hizkuntzaren batekin lagunduta, baina betiere euskarari lehentasuna emanda (whatsapp taldeak, posta elektronikoak...).
- Webgunerik izatekotan edo sare sozialetan euskararen presentzia bermatuko da, eta euskara ez beste hizkuntzaren bat erabiltzekotan euskarari lehentasuna emango zaio.
- Hitzaldiak, jaialdiak, lehiaketak, kanpainak, ate irekiak edo dena delakoak euskaraz egingo dira; euskararen presentzia bermatuko da bai ahoz bai idatziz. Hitzaldietan, ahal den guztietan, hizlari euskaldunak izateko ahalegin berezia egingo da. Hizlari euskaldunak ez balego, aurkezpena eta jorratuko den gaiaren laburpena euskaraz egingo dira eta parte hartzailearen batek euskaraz berba egin gura balu, baliabideak jarriko litateke itzulpen lana egiteko.
- Hitzaldiez aparte ekintzetan, salbuespen moduan, ekintza euskara ez den beste hizkuntza batean egingo balitz, aurkezpen lana euskaraz edo euskarari lehentasuna emanda egingo da.
- Megafonia bidez ematen diren mezuak euskaraz izatea bermatuko da, eta beste hizkuntzaren bat erabiltzekotan, euskarari lehentasuna emango zaio.
- Euskal musika jarriko da, bai jarduera orokorretan, bai berezietan edota jaietan. Orokorrean, euskal musikari lehentasuna emango zaio.
- Euskara bultzatzeko, eta euskal kulturarekin, euskal identitatearekin eta izaerarekin lotutako ekimenak bideratzeko edo helburu horrekin bideratzen direnetan parte hartzeko ahalegina egingo da.
- Hizkuntzaren tratamendua aurreikusiko da hirugarrenekin zerbitzuak kontratatzean.
- Euskararen kalitatea bermatuko da ahozko eta idatzizko ekintza guztietan; ekintzak publizitzatzeko jendaurrean jarriko diren euskarriak, zein jendaurrean egongo diren gainerako elementu guztiak (kartelak, prezio zerrendak...) Euskera Sailera bideratuko



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Data: 06/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9



	dira hizkuntza kalitatea bermatzeko, eta gainbegiratze eta laguntza lana egiteko. Aurreko puntuan esandakoaz gain, hizkuntzaren inguruan egon daitekeen edozein zalantza argitzeko Euskera Sailari laguntza eskatzea gomendatzen da.
BERDINTASUN IRIZPIDEAK	Ez dute inola ere dirulaguntzarik jasoko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren aurkakoak diren helburuak, onarpen-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo jarduera dituzten pertsonak edo elkarteak. Dirulaguntzen onuradunek honako betebeharrak izango dituzte: - Elkarteak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraikiz, sexu-diskriminazioan erori izanagatik zigor- edo administrazio-arloko zigorra ez izatea - Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egitea, programak, proiektuak edo jarduerak sustatzeko egiten diren kartel, testu eta agiriak edukietan. - Programa, proiektu edo jardueretan, genero-ikuspegia kontuan hartzea. - Edonolako sexu, genero, orientazio sexual, arrazakeria edo erlijioagatik bereizkeria zuzena edo zeharkakoa eragiten duen programa, proiektu edo jarduerarik ez sortzea. Aurreko betebeharrak bete ezean, dirulaguntzaren zati bat edo osorik itzultzeko eskatu ahal izango da. Nolanahi ere, lege eta erregelamenduetan aurreikusitako gainerako ondorioak ere ezarri ahal izango dira.
ESKATZAILEAK:	- Edozein pertsona juridikok eskatu ahal izango ditu, honako baldintza hauek betetzen baditu: - Irabazi asmo bakoak izatea. - Eusko Jaurlaritzaren Elkarleen Erregistroan sartuta egotea. - Egoitza Bermeon edukitzea eta bere jarduerarik garrantzitsuenak herri honetan edota herriko auzoetan jaiak edo ekitaldiak antolatzen garatzea. - Egoitza Bermeotik kanpo badauka, baina ekintza bat Bermeon edota bertako auzo batean proposatzen badu eta Balorazio Batzordean interesgarritzat jotzen bada, aztertu egingo da. - Kultura izaerako elkarteak ez bada, Balorazio Batzordean aztertu egingo litzateke. - Edozein pertsona fisikok eskatu ahal izango ditu, honako baldintza hauek betetzen baditu: - Auzo alkatea izatea. - Herrian eragina duen jaietako edota bestelako ekintzaren bat



	antolatzen duen herritarren bat izatea. Kasu bietan, Bermeoko Udalak aurretik emandako dirulaguntzen justifikazioak behar diren moduan eta egunean izan beharko dira. Pertsona juridiko eta fisikoen kasuetan, dirulaguntza eskatzen eta justifikatzen diren aldietan tokiko zerga zorrak ordainduta izatea (Bermeoko Udalak ziurtatuko du puntu hau) eta Gizarte Segurantzaren egunean egotea (edo udalari baimena eman eskuratzeko) eta betebeharrak fiskaletan egunean egotea. Kultur talde, elkarte, kale edota auzo bakoitzeko eskaera bat baino gehiago jasotzen bada, udalak bakar bat onartuko du deialdi bakoitzean. Kasu honen aurrean egongo bagina onarpenaren zeregina Balorazio Batzordeak edukiko luke eta dirulaguntza emango litzaioke ebaluazio irizpideak kontuan izanik puntuaketa handiena lortzen duenari.
DIRUZ LAGUNDUKO DIREN KONTZEPTUAK:	Diruz lagundu daitezkeen gastuen xedea da: elkartrukeak, urteurren ospakizunak, lehiaketak, jaialdiak, nazioarteko egunen ospakizunak, bideo emanaldiak, folklore ekitaldiak, ondarea eta arte plastikoak, jai ekitaldiak, musika saioak, kultura arloko saioak, jaietako kirol saioak, umeentzako ekitaldiak eta kultur arlokoak orokorrean. Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak honako hauek dira: federazioen kuotak, beharrezkoak diren kudeaketa gastuak, ekintza bakoitza aurrera eramateko behar duten azpiegitura, apaingarriak eta jaiak girotzeko beharrezkoak, publizitatea, aseguruak, orogarriak, sariak, garraioak, formazioa, baliabide materialen hornikuntza, giza baliabideak eta bankuetako komisioak. Diru-sariei, 300 €-tik gorakoak izanez gero, PFGZ aplikatu beharko zaie. Diruz lagundutako programarekin lotura zuzena duten janari gastuak eta ordezkaritza gastuak ere onartuko dira, gehienez ekitaldiaren kostuaren % 20ra arte. Ez dira finantzatzeko honako gastu hauek: egonaldiak, luxuzko gastuak, banku-interesak eta administrazio-zigorak.
PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:	<u>Eskaeran aurkeztu beharreko dokumentuak:</u> • Betebeharrak fiskaletan egunean egotearen egiaztatzea. • Gizarte Segurantzaren egunean egotearen egiaztatzea (edo udalari baimena eman ziurtatzeko) • Proiektua, dagokion eranskinean zehaztuta. (IN-E 269) • Aurrekontua, dagokion eranskinean zehaztuta (IN-E 270) Pertsona juridikoen kasuan, dokumentu hauek ere aurkeztu behar dira: Eskatzaileak elkarteko zuzendaritza batzordeko kidea izan behar du. • Identifikazio fiskalaren kodea (aldez aurretik aurkeztu ez bada). • Elkarteko estatutuak eta zuzendaritza batzordeko kideen izendapena eguneratuta, baldin eta lehenago aurkeztu ez badira Kultura eta Hezkuntza Sailean (edo udalari baimena eman eskuratzeko).



	<u>Pertsona fisikoen kasuan</u>, dokumentu hau ere aurkeztu behar da: • Nortasun Agiri Nazionala (aldez aurretik aurkeztu ez bada). Dirulaguntza eskaera eta justifikazioa udaleko eranskinetan aurkeztuko dira, egoitza elektronikoan, datu guztiak ondo bete ondoren. Pertsona fisikoen kasuan, egoitza elektronikoan edo Berhaz bulegoan aurkeztu daiteke. Udalak, deialdia egiten duenean, aukera eman ahal du, dirulaguntza lerroren batean, eskaerak eta justifikazioak batera aurkezteko, honako era honetan: <u>Eskaera eta justifikazioa batera aurkeztean gehitu behar diren dokumentuak:</u> • Betebehar fiskaletan egunean egotearen egiaztatzea. • Gizarte Segurantzaren egunean egotearen egiaztatzea (edo udalari baimena eman ziurtatzeko) • Ekitaldien ebaluazio txostena eta balantze ekonomikoa, dagokion eranskinean zehaztuta. (IN-E XXX) • Ordaindutako fakturak, tiketak eta erreziboak eta horien ordainagiriak. <u>Pertsona juridikoen kasuan</u>, dokumentu hauek aurkeztu behar dira: Eskatzailea elkarteko zuzendaritza batzordeko kidea izan behar da. • Identifikazio fiskalaren kodea (aldez aurretik aurkeztu ez bada). • Elkarteko estatutuak eta zuzendaritza batzordeko kideen izendapena eguneratuta, baldin eta lehenago aurkeztu ez badira Kultura eta Hezkuntza Sailean (edo udalari baimena eman eskuratzeko). <u>Pertsona fisikoen kasuan</u>, dokumentu hau aurkeztu behar da: • Nortasun Agiri Nazionala (aldez aurretik aurkeztu ez bada). Dirulaguntza eskaera eta justifikazio bateratuak udaleko eranskinean aurkeztuko dira, egoitza elektronikoan, datu guztiak ondo bete ondoren. Pertsona fisikoen kasuan, egoitza elektronikoan edo Berhaz bulegoan aurkeztu daiteke. <u>Akatsak zuzentzeko epea</u> Dirulaguntza eskaeran ez badira eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun naturalak izango ditu akatsak zuzentzeko, errekerimenduko jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita. Denbora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskaerari uko egiten zaiola ulertuko da. <u>Dirulaguntzak emateko prozedura</u> Dirulaguntza emateko prozedura ekimenetarako: Konkurrentzia lehiakorra. <u>1. eta 2. deialdietarako eskaera egiten bada:</u> • Dirulaguntza prorratatuz aterako da. • Prorrata denean, eskatzaileek aurkezten duten eskaera guztien artean banatuko da aurrekontuko dotazio guztia. • Prorrata sistemaren bidez emango dira, honako taula honen
--	--



	arabera, eta kontuan izanik gehiengo puntuaketa 150 puntukoa izango dela. 1.000 €-ra arteko aurrekontua daukaten programek, aurrekontuaren % 100ra arteko dirulaguntza lortu dezakete. 1.000 €-tik gorako aurrekontua daukaten programek 1.000 €-ko dirulaguntza izango dute finko, eta honi gehituko zaio zenbateko horretatik gorako aurrekontuaren zenbatekoari dagokion dirulaguntza. Azpiko taulan agertzen denaren arabera kalkulatu da: <table border="1" data-bbox="596 562 1538 770"> <tr> <th>1.000 €-tik gorako aurrekontua daukaten programek lortutako puntuak</th><th>1.000 €-tik gorako zenbatekoan dirulaguntzaren %</th></tr> <tr> <td>70 puntu baino gehiago (1. deialdia)</td><td>Aurrekontuaren % 80 arte</td></tr> <tr> <td>50 puntu baino gehiago (2. deialdia)</td><td>Aurrekontuaren % 100era arte</td></tr> <tr> <td>30etik 69 puntura bitartean (1. deialdia)</td><td>Aurrekontuaren % 70 arte</td></tr> <tr> <td>30etik 49 puntura bitartean (2. deialdia)</td><td>Aurrekontuaren % 80 arte</td></tr> </table> - Aurkeztutako proposamenek gutxienez 30 puntu lortu beharko dituzte dirulaguntza jasotzeko. 1. deialdirako eskatzaile batek ezin izango du 7.500 € baino gehiago jaso. 2. deialdiko eskaera egiten bada, dirulaguntzaren kopuru handiena 4.000 € izango da. - Eskatutako dirulaguntza guztien kopurua deialdi bakoitzerako proposaturikoa baino handiagoa denean, diruaren banaketa proportzioan egingo da. <u>3. deialdirako eskaera egiten bada:</u> - Konkurrentzia lehiakorra baina konparaziozko balioespenik egin gabe erabiliko da. - Gehiengo puntuaketa 110 puntukoa izango dela kontuan izanik, azpiko taulan agertzen denaren arabera kalkulatu da: <table border="1" data-bbox="616 1346 1418 1473"> <tr> <th>Programek lortutako puntuak</th><th>Dirulaguntzaren %</th></tr> <tr> <td>86 puntu baino gehiago</td><td>Aurrekontuaren % 100a arte</td></tr> <tr> <td>71tik 85 puntura bitartean</td><td>Aurrekontuaren % 90 arte</td></tr> <tr> <td>30etik 70 puntura bitartean</td><td>Aurrekontuaren % 80 arte</td></tr> </table> - Landa eremu auzotako jaiak antolatzeko dirulaguntza lerrorako eskatzaile batek ezin izango du 4.500 € baino gehiago jaso. - Herriko jaiak antolatzeko dirulaguntza lerrorako eskatzaile batek ezin izango du 4.000 € baino gehiago jaso. - Aurkeztutako proposamenek gutxienez 30 puntu lortu beharko dituzte dirulaguntza jasotzeko. Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribaturen batek helburu bererako emandako dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabideekin eta diruz lagundutako jardueraren bat, gainfinantzatuta geratzen ez bada.	1.000 €-tik gorako aurrekontua daukaten programek lortutako puntuak	1.000 €-tik gorako zenbatekoan dirulaguntzaren %	70 puntu baino gehiago (1. deialdia)	Aurrekontuaren % 80 arte	50 puntu baino gehiago (2. deialdia)	Aurrekontuaren % 100era arte	30etik 69 puntura bitartean (1. deialdia)	Aurrekontuaren % 70 arte	30etik 49 puntura bitartean (2. deialdia)	Aurrekontuaren % 80 arte	Programek lortutako puntuak	Dirulaguntzaren %	86 puntu baino gehiago	Aurrekontuaren % 100a arte	71tik 85 puntura bitartean	Aurrekontuaren % 90 arte	30etik 70 puntura bitartean	Aurrekontuaren % 80 arte
1.000 €-tik gorako aurrekontua daukaten programek lortutako puntuak	1.000 €-tik gorako zenbatekoan dirulaguntzaren %																		
70 puntu baino gehiago (1. deialdia)	Aurrekontuaren % 80 arte																		
50 puntu baino gehiago (2. deialdia)	Aurrekontuaren % 100era arte																		
30etik 69 puntura bitartean (1. deialdia)	Aurrekontuaren % 70 arte																		
30etik 49 puntura bitartean (2. deialdia)	Aurrekontuaren % 80 arte																		
Programek lortutako puntuak	Dirulaguntzaren %																		
86 puntu baino gehiago	Aurrekontuaren % 100a arte																		
71tik 85 puntura bitartean	Aurrekontuaren % 90 arte																		
30etik 70 puntura bitartean	Aurrekontuaren % 80 arte																		



	<u>Dirulaguntzak ordaintzea</u> Bermea: ez da eskatuko bermerik ipintzea. Bermeoko Udalak dirulaguntza lerro bateko deialdiren baten eskaera eta justifikazioa batera aurkeztea eskatzen badu, dirulaguntzaren zenbatekoa % 100ean ordainduko da. Bermeoko Udalak, dirulaguntza lerroetan eskaerak alde aurretik eta gero justifikazioak egitea eskatzen duenean, alde aurreko ordainketak egingo ditu, jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa. Kasu honetan, Bermeoko Udalak dirulaguntzak zati bitan ordainduko ditu: % 75 dirulaguntzaren zenbatekoa esleitzen denean eta gainerako % 25a, justifikazioa egin ondoren. Aurkeztutako programa osoa justifikatzen ez bada, justifikazioaren ondoren eman beharreko dirulaguntza berraztertuko da. Dirulaguntza kopuru berriarekin likidatuko da. Hasierako kalkulu orria oinarritzat hartuta, aurrekontuak eta gastuen artean % 10etik gorako desoreka badago, dirulaguntza zenbatekoa Balorazio Batzordeak berriro kalkulatu du. <u>Dirulaguntzaren onuradunen betebeharrak</u> • Bermeen, kaleetako paneletan ezin dira 30 kartel baino gehiago jarri. Hormetan ezin izango da kartelik jarri. • Udalari jakinaraztea beste dirulaguntza batzuk hartzen baditu eta horien zenbatekoa (denen artean ezin izango dira % 100 baino handiagoak izan). <u>Dirulaguntzaren justifikazioa</u> • Dirulaguntzaren justifikazioa egoitza elektronikoan egin beharko da, pertsona juridikoen kasuan. Pertsona fisikoen kasuan, egoitza elektronikoan edo Berhaz bulegoan aurkeztu beharko da. • Ebaluazio-memoria udaleko eranskinetako edukiaren arabera egingo da: (IN-E 271 eta IN-E 272), egindako ekintzen garapena, parte-hartzaileak, balorazioa eta balantze ekonomiko osoa. • Ordaindutako faktura originalak egoitza elektronikoan eskaneatuta aurkeztuko dira. Ez da onartuko beste gastu batzuen justifikaziorik, haiek ez badute balio dirulaguntzaren helburuak lortzeko. • Fakturretan enpresaren izena, Identifikazio Fiskalaren Kodea edo Identifikazio Fiskalaren Zenbakia, faktura zenbakia, data, kontzeptua, zenbatekoa, BEZa eta dirulaguntzaren onuradunaren datu fiskalak azaldu beharko dira. • Fakturak ordainduta daudela egiaztatu beharko da. Horretarako, faktura bakoitzaren ordainagiria aurkeztu beharko da, bankuko transferentzia bidez edo esku dirutan ordaintzen dena, fakturretan "ordainduta" hitzarekin. • Tiketak faktura sinplifikatu moduan onartuko dira, betiere, datuak zehazturik agertzen badira eta justifikazio osoaren % 25 baino ez badira. Autopistako tiketak, garraio publikoko tiketak eta aparkalekuetako tiketak onartuko dira, betiere, aurkeztutakoak dirulaguntzaren helburuarekin bat datozenean. • Sariak edo ordainketa txikiak dirutan ordaintzen badira,
--	--



	erreziboek honako datu hauek izan beharko dituzte: elkarte edota pertsona fisikoaren datu fiskalak, saria ematearen kontzeptua, zenbatekoa, 300 €-tik gorakoa bada zenbatekoaren atxikipenaren datua, diruaren jasotzailearen datu fiskalak eta jaso izanaren izenpea eta data. • Erabilitako publizitatea aurkeztu beharko da, aurretik ez bada aurkeztu. Horietan Bermeoko Udalaren logoa agertu beharko da. • Dirulaguntzarekin egin beharreko programa ez egiteak edo dirulaguntza aurreko dokumentazioaren arabera ez justifikatzeak dirulaguntza galtzea ekarriko du eta ordaindutako kopurua itzuli beharko da, gehienez 30 eguneko epean. Akatsak zuzentzeko epea Justifikazioan ez badira eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun natural edukiko ditu akatsak zuzentzeko, errekerimenduaren jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita.
AURREIKUSITAKO KOSTUAK PROGRAMA HONETAN	Urteko aurrekontuan jasotako kopuruaren arabera
JARRAIPEN ETA EBALUAZIORAKO ADIERAZLEAK:	- Udaleko batzar edo jardueretan parte hartzen duten elkarten kopurua urtero gutxienez 4 izatea. - Elkarten herritarrei zuzendutako jardueren kopurua (udalaren dirulaguntzarekin edo dirulaguntza barik), urtero gutxienez 24 izatea. - Diruz lagundutako 6 ekimenetan parte-hartzaile kopurua gutxienez 300 pertsonakoa izatea. - Jaietako dirulaguntzaren batez besteko zenbatekoa biztanleko, gutxienez 2 €-koa izatea.
AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:	- Eskaera egiteko eranskinak: IN-E 269 eta IN-E 270 - Justifikazioa egiteko eranskinak: IN-E 271 eta IN-E 272 - Eskaera eta justifikazioa batera egiteko eranskina: IN-E XXX
GENERO ERAGINA	BAI
1/1982 LOaren arabera argitaragarria ez den emakida BAI/EZ	<i>1/1982 Lege Organikoa, maiatzaren 5ekoa, Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilari buruzkoa.</i> EZ

BIGARRENA: Kultura eta Hezkuntza Sailari Bermeoko kultur talde eta pertsona fisikoei urteko kultur eta jai ekimenak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri zehatzak Bizkaiko Aldizkari Ofizialera bidaltzeko agindua ematea.

9.- 78922642M NAN ZENBAKIDUN LANGILEAK EGINDAKO BATERAGARRITASUN ESKARIA ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=15&t=2741>



Xedea

Udalaren Musika Eskolako 78922642M NAN zenbakidun flautako irakaslea, Euskal Herriko Unibertsitatean lan egiteko bateragarritasuna izateko eskaera.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2025eko otsailaren 17an, 20252174 zenbakidun sarrera erregistro bidez, 78922642M NAN zenbakidun Udalaren Musika Eskolako flautako irakasleak honako hau eskatu du:

“Bermeoko Udaletik dokumentu bakarra jaso behar dut. Dokumentu horretan EHUtik eskaini didaten kontratuaren bateragarritasuna onartzen duzuela azaldu behar da, besterik ez.”

Bigarrena: Udalaren Musika Eskolako 78922642M NAN zenbakidun flautako irakasleak adierazten duenez, Musika Eskolako eta Euskal Herriko Unibertsitatean eskainitako lanpostuaren ordutegiak guztira bateragarriak dira:

Musika Adierazpenaren Garapena II (bigarren lauhilabetekoa)

Talde teorikoa (18. astean bakarrik)

Astelehenak: 08:30 – 10:30

Ostiralak: 08:30 – 10:30

Talde praktikoak (11 astetan)

- GA1: 16. eta 17. eta 19 – 27 asteetan:

Ostiralak: 08:30 – 10:30 eta 11:00 – 13:00

- GA2: 16. eta 17. eta 19 – 27 asteetan:

Astelehenak: 08:30 – 10:30 eta astearteak: 08:30 – 10:30

Argudioak

Lehenengoa: Herri Administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen aplikazio eremuari buruzko 2.c artikuluan, honako hau ezartzen da:

“Artículo segundo.



1. La presente Ley será de aplicación a:

(...)

c) El personal al servicio de las Corporaciones Locales y de los Organismos de ellas dependientes.

(...)

2. En el ámbito delimitado en el apartado anterior se entenderá incluido todo el personal, cualquiera que sea la naturaleza jurídica de la relación de empleo.”

Beraz, lan-kontratuko langileak 53/1984 Legean ezarritako bateraezintasun-araubidearen mende daude.

Bigarrena: 53/1984 Legeak ezartzen duen bateraezintasun-araubide orokorraren salbuespenetako bat da sektore publikoko bigarren lanpostua edo jarduera irakaskuntzako eginkizuna izatea, lege horretan aurreikusitako kasuetan. Zehazki, kasu hori 4. artikuluan aipatzen da, irakaskuntzaren esparruan unibertsitateko irakasle elkartu gisa aritzeko aukera ematen duena, lanaldi partzialetik gorakoa ez den dedikazio-erregimenean eta iraupen jakinarekin:

“Artículo cuarto.

1. Podrá autorizarse la compatibilidad, cumplidas las restantes exigencias de esta ley, para el desempeño de un puesto de trabajo en la esfera docente como Profesor universitario asociado en régimen de dedicación no superior a la de tiempo parcial.”

Era berean, 2. ataleko 4.paragrafoan honako hau ezartzen da:

“Igualmente, podrá autorizarse la compatibilidad para el desempeño de un segundo puesto de trabajo o actividad a tiempo parcial en el sector público cultural, cumplidas las restantes exigencias de esta ley, salvo la prohibición establecida en el artículo 16.1, al personal funcionario y laboral de las administraciones locales de las enseñanzas establecidas en el artículo 45 de la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación y al profesorado perteneciente a los Cuerpos de Catedráticos y Catedráticas y Profesores y Profesoras de Enseñanzas Artísticas Profesionales o de Enseñanzas Artísticas Superiores que preste servicio en los centros públicos que impartan dichas enseñanzas.

Bigarren lanpostu, kargu edo jarduera publiko bat betetzeko bateragarritasuna administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunen araubideak arautzen du. Goi-mailako musika-kontserbatorioetan eta musika-kontserbatorio profesionaletan lan egiten duten katedradunen eta irakasleen kasuan, baimena eman dakieke kultura-sektore publikoan bigarren lanpostu



publiko bat betetzeko bateragarritasuna. Bateragarritasuna baimendu ahal izateko, zenbait baldintza bete behar dira, hala nola jarduerak bateragarriak izatea eta administrazio publikoetan baimendutako gehieneko lanaldia ez gainditzea.

Udalaren Musika Eskolako 78922642M NAN zenbakidun flauta eta hizkuntza musikaleko irakasleak honako ordutegi hau du Bermeoko Udalaren Musika Eskolan:

Astelehena: 16:00 – 18:45

Martitzena: 15:00 – 21:00

Eguaztena: 13:30 – 20:30

Beraz, ordutegiak bateragarriak dira eta bi lanpostuetako lanaldiek ez dute %100 gainditzen.

Hirugarrena: Unibertsitate publiko bateko irakasle izatea sektore publikoko jardura da, eta, beraz, bateragarritasun-baimena behar du. Baimen hori Osoko Bilkurak eman behar du, 53/1984 Legearen 9. artikuluan xedatzen den moduan:

“Artículo noveno.

La autorización o denegación de compatibilidad para un segundo puesto o actividad del sector público corresponde al Ministerio de la Presidencia, a propuesta de la Subsecretaría del Departamento correspondiente, al órgano competente de la Comunidad Autónoma o **al Pleno de la Corporación Local a que figure adscrito el puesto principal**, previo informe, en su caso, de los Directores de los Organismos, Entes y Empresas públicas.”

Laugarrena: Herri Administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 3. artikulua ezartzen duenez, bigarren jardueran aritzeko, ezinbestekoa izango da aldez aurretik eta berariaz bateragarritasun-baimena ematea. Baimen horrek ez du bi lanpostuen lanaldia eta ordutegia aldatuko, eta biek zorrotz bete beharko dute.

Bateragarritasun-baimena interes publikoaren arabera emango da beti.

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9



LEHENENGOA: Herri Administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak ezartzen duenez, unibertsitatean bigarren jardueran aritzeko bateragarritasun-baimena ematea onartzea.

BIGARRENA: Baimen horrek ez du bi lanpostuen lanaldia eta ordutegia aldatuko, eta biek zorrotz bete beharko ditu.

HIRUGARRENA: Herri Administrazioen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 9. artikuluan xedatutakoa betez, erabakia Osoko Bilkurara bideratzea.

10.- HIRI HONDAKINEN KUDEAKETARAKO BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREKIKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

<http://bideoakta.bermeokoudala.eus/BERMEO/visor.aspx?id=15&t=2813>

Alkateak adierazi du “hiri hondakinen kudeaketarako BFArekiko lankidetza hitzarmena sinatzea onartzea” diktamen barik dagoela, eta, horregatik, lehenik eta behin, puntua gai zerrendan sartu izana berretsi behar dela, Udalbatzen Antolaketa, Jardunbidea eta Erregimen Juridikoari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Erregelamenduko 82.3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bozketa egin ostean udal Osoko Bilkurak, aho batez, “hiri hondakinen kudeaketarako BFArekiko lankidetza hitzarmena sinatzea onartzea” puntua gai zerrendan sartu izana berretsi du.

Xedea

Hiri hondakinen kudeaketarako Bizkaiko Foru Aldundiarekiko lankidetza hitzarmena sinatzea onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Hiriko hondakinen tratamenduaren zerbitzuaren prestaziorako Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bermeoko Udalaren arteko lankidetza hitzarmen bat prestatu da, non lankidetza horren baldintzak erregulatzen dira. Edozelan ere, onartzen da zerbitzua Garbiker S.A. foru sozietate publikoaren bidez emango dela.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Bigarren: 2025eko martxoaren 18an Zerbitzuetako teknikariak justifikatze memoria eman zuen.

Hirugarrena: 2025eko apirilaren 16an Idazkaritzako AOTk txosten juridikoa eman zuen.

Laugarrena: Lankidetz hitzarmen honekin lotutako balizko gastuek dagozkien atxikipenak dauzkate (RC-2025/000283 eta RC-2025/000284).

Bosgarrena: 2025eko apirilaren 7an kontu-hartzaileak fiskalizazio txosten mugatua eman zuen.

Argudioak

Lehenengoa: Interes publikoak era koordinatuan jardutea suposatzen duela jakinda Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bermeoko Udalak, erakundeek aipaturiko hiri hondakinen tratamendua kudeatzerakoan jarduketa eraginkorrerako lankidetzarako oinarriak ezartzea adostu dute.

2021eko maiatzaren 3an erakunde bien artean lankidetz hitzarmena sinatu zen orain planteatzen den hitzarmenaren helburu berdinarekin.

Bigarren: Hitzarmen honen eragin ekonomikoa hiri hondakinen behin betiko ezabatzeari dagokio eta Bizkaiko Foru Aldundiak eskainiko duen zerbitzuaren prezioa Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretu bitartez adostutako prezio publikoa izango da.

Foru Dekretu horrek uztailaren 11ko 126/2006 Foru Dekretua aldatuko du, hiri hondakinak behin betiko ezabatzeko zerbitzuaren prezio publikoaren erregulazioa aplikatu eta garatzen duena.

Bestalde, prezio publikoaren kudeaketa, likidazioa eta bilketa Garbiker sozietateak egingo du, urriaren 30eko 192/2007 Foru Dekretuaren 5. artikulua xedatutakoarekin bat etorritz.

Hirugarrena: Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 5. artikulua, Toki Erregimenaren Testu Bateratua onartzen duen 781/1986 EDLaren 111. artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Administrazio Orokorra onartzen duen 39/2015 Legearen 86. artikulua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluan, Sektore Publikoko



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udalak)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9



Kontratuen 9/2017 Legearen 6. artikulua, eta Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legea hartu dira kontutan.

Laugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, akordio honen izaera juridikoa administrazioen arteko lankidetzeta-hitzarmen izanda, gaiaren arabera dagokion organoaren eskumena izango da. Kasu honetan, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 Oinarri Legearen 22.2.f) eta SPKLren 2º XGren arabera, lankidetzeta hitzarmen hau onartzeko ahalmena Osoko Bilkurari jagoko.

Erabakia

Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honakoa erabaki du:

LEHENENGOA: Hiri hondakinen kudeaketarako Bizkaiko Foru Aldundiarekiko lankidetzeta hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Bizkaiko Foru Aldundiari honen berri ematea hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari, Errenta Sailari, Diruzaintzari, Urigintza, Obra eta Ingurumen Sailari eta Zerbitzu Sailari erabakiaren berri ematea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E90012D33E00H6Z2B7X5I7Q9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 06/05/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 06/05/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 06/05/2025 12:16:56

DOCUMENTO: 20251233726

Fecha: 06/05/2025
